

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2018ko martxoaren 5ko martxoaren 10rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

2018/03/05ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

- Errepideko Salgaien Garraioaren Industriaren eta Arabako Garraio Agentzietarako Sektorearentzako 2018ko soldataren berrikuspena. **762 xedapena - 5 or.**

2018/03/06 Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2018ko otsailaren 22koa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, trenbide-kontratuen sektorerako hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **3154 xedapena - 55 or.**
- Ebazpena, 2018ko otsailaren 22koa, merkatu-ikerketa eta aholkularitza-enpresen eta iritzi publikoaren estatu-mailako XVII. hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **3156 xedapena - 31 or.**

2018/03/09ko Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2018ko martxoaren 1ekoa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, 2018ko otsailaren 6ko ebazpeneko akatsak zuzentzen dituen; haren bidez, paperaren salerosketaren eta arte grafikoen zikloko hitzarmen kolektibo nazionalako 2018ko soldata-taulak erregistratu eta argitaratu ziren. **3343 xedapena - 2 or.**

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2018/03/06

- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. - Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** - Martxoaren 1eko ESS/214/2018 Agindua, zeinak aldatzen duen martxoaren 26ko ESS/484/2013 Agindua, Gizarte Segurantzaren esparruan Datuen Bidalketa Elektronikoko Sistema arautzen duena. **3080 xedapena - 5 or.**
- **LEHENDAKARITZAKO ETA LURRALDE-ADMINISTRAZIOETARAKO MINISTERIOA. - Antolaketa.** - 94/2018 Dekretua, martxoaren 2koa, Ministerio arteko Batzordea sortzen duena kontratazio publikoan irizpide sozialak eransteko. **3081 xedapena - 8 or.**

2018/03/07

- **ESTATUAREN BURUZAGITZA. - Urak.** - 1/2018 Legea, martxoaren 6koa; horren bidez, premiazko neurriak hartzen dira lehortekak zenbait arro hidrografikotan eragindako efektuak arintzeko eta aldatu egiten da uztailaren 20ko 1/2001 legegintzako errege-dekretu bidez onartu zen Uraren Legearen testu bategina. **3171 xedapena - 16 or.**

2018/03/08

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga.** - HFP/231/2018 Agindua, martxoaren 6koa, zeinaren bidez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren 2017ko aitorpenak egiteko ereduak onartzen baitira, aitorpenak aurkezteko lekua, modua eta epeak ezartzen baitira, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenaren zirriborroa eskuratu, aldatu, berretsi eta aurkezteko prozedurak ezartzen baitira, zera baten zein bestearen aitorpenak telematikoki edo telefono bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen baitira, eta azaroaren 22ko HAP/2194/2013 Agindua -tributuen arloko zenbait autolikidazio, informazio-aitorpen, zentsu-aitorpen, komunikazio eta itzulketa-eskaera aurkezteko prozedurak eta baldintza orokorrak arautzen dituen- aldatzen baita. **3232 xedapena - 70 or.**

2018/03/10

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. - Balio Erantsiaren gaineko Zerga.** - Akatsen zuzenketa, dokumentu honena: HFP/187/2018 Agindua, otsailaren 22koa; horren bidez, HFP/417/2017 Agindua aldatzen da, maiatzaren 12koa, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren egoitza elektronikoaren bidez balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro-liburuak nola eraman —abenduen 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 62.6 artikuluan ezarria— garatzen duten zehaztapen arauemaile eta teknikoak arautzen dituen eta beste zerga-arau batzuk aldatzen dituen; bai eta 322 eredu ere: «Balio erantsiaren gaineko zerga. Erakunde-taldea. Bana-banako eredu. Hilabeteroko autolikidazioa. Inportazioaren balio erantsiaren gaineko zerga ordaintzea, aduanak likidatua» azaroaren 23ko EHA/3434/2007 Aginduak onartua. **3356 xedapena - 41 or.**
- **SUSTAPEN MINISTERIOA. - Etxebizitza.** - 106/2018 Errege Dekretua, martxoaren 9koa, 2018-2021. aldirako Estatuaren Etxebizitza Plana arautzen duena. **3358 xedapena - 49 or.**
- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA - Administrazio prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** - Ebazpena, 2018ko martxoaren 6koa, Soldatak Bermatzeko Funtzarena; horren bidez, erregistro elektronikoaren bidez egin daitezkeen beste prozedura batzuk txertatzen dira urriaren 7ko TIN/2942/2008 aginduko I. eranskinean. **3359 xedapena - 1 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2018/03/05

- **OSASUN SAILA.** - 25/2018 DEKRETUA, otsailaren 20koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko Legean bildutako erakunde-egitura garatzen duena. 1139 xedapena – 13 or.

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): **Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: informacion.juridica@mutualia.es

MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO